



Fritz Lang-en *Metropolis* filmak urtez luzez iraun zuen pentsamendu kolektiboan etorkizuneko hiriaren ikur gisa, Ridley Scott-en *Blade Runner*-ek ordeztu zuen arte, wachowskitarren *Matrix*-ek gerora ordezkaturik. Metropolitik Sion-era 2019ko Los Angelesetik pasata, edo futurismo sozialistatik postapokalipsi digitalera cyberpunk reagantarretik pasata. Nolanahi ere, hor azaldu zaigu beti arkitektura bisionarioa, etorkizun utopiko, distopiko baten iradokitzaile.

Krisi garaioan, non paradigma berriak beharrezkoak diren ekonomikoki, sozialki nahiz arkitekturaren arloan, errealitatea alde batera utzi nahi izan dugu apur bat, arkitektura nahiz beste diziplinetatik etorkizuna iradokitzeko egin diren saiakerak aintzat hartzeko.

Izan ere, alegiazko lekuak ideia eta bide berrien irrikaren erakusgarri izan dira, aspaldi-aspalditik. Zer dira, bada, Noeren ontzia eta Babelgo dorrea, proposamen utopikoak (ala distopikoak, hain da ezin sumatuzkoa aldea batzuetan) baino? Piranesiren grabatuek aro ilustratua gainditu nahi izan zuten; Étienne-Louis Boullée-ren *Newtonen Zenotafoak*, aldiz, garaiko neoklasizismoa. Industria Iraultzarekin batera, proposamen utopikoak hiri-eredu berriarekiko konfiantza ezaren erakusle izan ziren; mesfindantza hartatik sortu zen, adibidez, lorategi-hiriaren kontzeptua Ebenezer Howard-en eskutik.

XX. mendeko aldaketa politikoek ere izan zuten isla arkitektura eta hirigintzako proposamenetan. Kasu honetan ere, alegiazko bisioak izan ziren gerora errealitate bilakatuko ziren proposamen pragmatikoagoen aurrekariak: Le Corbusier-en *La Ville Radieuse*, Archigram-en *Megaegiturak*, hirigile sobietarrak, metabolista japoniarrak... Utopia eta distopia errealitatetik urrun dauden kontzeptuak diren arren, mahaigaineratu egiten dituzte momentuko gatazkak eta aurreikusi egiten dituzte etorkizunekoak. Gehiago dira manifestu proposamen errealak baino, baina berdin-berdin dira beharrezko.

Gure txikitasunetik, Euskal Herrian ere badugu begia non ipini. Bidean gelditu diren proiektu frustratu batzuk azpimarratu nahi izan ditugu haien ezaugarri bisionario eta berritzaileengatik, eta Oteiza agertu zaigu ezinbestean: Donostiako Ametzagainako hilerria, Bilboko Alhondiga eta Zorrozaurre. Zenbaki honetan topatuko dituzu, bada, izatera iritsi ez zirenak. Izan zitezkeenak. Izan daitezkeenak.